

Jokabide-Kodea



Ingeteam



PRESIDENTEAREN
ESKUTITZA



2023ko irailaren 1a

2012. urtean Ingeteamen Jokabide-Kodea argitaratu genuen; hau gure negozio harremanen zutabeetako bat izan da. 2019. urtean bezala, une honetan kodea eguneratzea erabaki dugu, gure erakundearen jokabide jarraibideak eta balioak modu egoki eta eraginkorragoan islatze aldera.

Administrazio Kontseilutik eguneratze lan hau baliatu nahi dugu negozio harreman etiko, zuzen eta zintzoekiko konpromisoa berresteko, gure bezero, hornitzaile, administrazio publiko, lotutako hirugarren alde eta, azken finean, lan egiten dugun lurraldeetako gizartearekiko konfiantzaren oinarria izan dadin. Horrez gain, legedi aplikagarria, barne araudia eta estandarrak eta gure enpresa jardunaren sektoreetako gomendioak betetzearekin dugun konpromisoa indartu nahi dugu.

Gure Jokabide-Kodearen helburu nagusia gure langileen jokabide estandarrak zehaztea da, honako hauei dagokienez:

- Balioak eta printzipioak Ingeteamen negozio harremanetan.
- Errespetatzen ez diren jokabideak, jokabide desegokiak eta, are gehiago, negozio harremanetan delituak eragin ditzaketen jokabideak.
- Kode honen kontrako jokabideak Salaketa Kanalaren bitartez jakinarazteko betebeharra gogoraraztea.

Ingeteameko aurreko presidentek aipatzen zuenaren haritik, *gogora dezagun jokabide egokiaren eredu izan behar dugula beti, eta errespetu, duintasun eta justizia irizpideen arabera jokatu behar dugula*. Helburu horrekin aurkezten dizuet Jokabide-Kodearen eguneratzea.



Teresa Madariaga Zubimendi
Ingeteameko Presidentea

aurkibidea

JOKABIDE-KODEA



01	Ingeteamen balioak, xedea eta aplikazio esparrua	06
02	Barne jokabidea.....	12
03	Bezeroekiko jokabidea negozioetan	24
04	Hornitzaileekiko jokabidea negozioetan	27
05	Lehiakideekiko jokabidea	30
06	Ingurune sozial eta publikoarekiko jokabidea	32
07	Betebeharrak eta ez betetzeak	36
08	Ezagutza, Onarpena eta Indarraldia	41

0

1

INGETEAMEN BALIOAK,
XEDEA ETA APLIKAZIO
ESPARRUA



1.1 XEDEA

Ingeteamen Jokabide-Kodearen helburua Administrazio Kontseilua, Zuzendaritza Batzordeak eta Ingeteameko enpresetako plantillak (Ingeteameko langile gisa definitutako taldea) osatzen dituzten pertsonen jokabide-jarraitzeak definitzea da, baita erakundearen kultura etikoa indartzea honako gai hauen inguruan ere:

- Balioak eta printzipioak Ingeteamen negozio harremanetan, jokatzeko modu estandarrak eta enpresa etikarekin lerrokatutako jokabideak ezarri.
- Errespetatzen ez diren jokabideak, jokabide desegokiak eta, are gehiago, negozio harremanetan delituak eragin ditzaketen jokabideak. Langileren batek kodea larriki urratuz gero, Jokabide eta Betetze Batzordeak diziplina prozesua abiaraz dezake, eta horrek langilea kaleratzea ekar dezake.
- Kode honen aurkako jokabidea jakinarazteko betebeharra, Salaketa Kanalaren bitartez.

Horrez gain, jokabide jarraitzeak Ingeteamekin harremana duten beste pertsona batzuek ere barneratzea espero da, bezeroak, hornitzaileak, bazkideak, kolaboratzaileak zein erakunde publiko eta pribatuak izan.

Jokabide-Kodeak Administrazio kontseiluak ezarritako Ingeteamen Misioa, Ikuspegia eta Balioak oinarritzat hartzen ditu; horrez gain, erakundearen barruan kultura etikoa indartzeko konpromisoa ere badu oinarritzat, baita taldeak lan egiten duen lurralde bakoitzeko araudia betetzean profesionalek beharrezko zorroztasunez jokatzeko ere.

Administrazio Kontseiluak egitura eta eredu bat ezarri du Ingeteamen helburu horrekin, Jokabide-Kodea eta araudi aplikagarria ez betetzea saihesteko, antzemateko eta ikertzeko, Jokabide eta Betetze Batzordearen bitartez; hala, gai hauetan hobekuntzak proposatzeko aukera ere emango digu.

1.2 MISIOA ETA IKUSPEGIA

Ingeteamek trantsizio energetiko globalaren eredu bultzatzeko misioa du, makina elektriko birakarian, potentzia-elektronikan eta automatizazio eta kontrolen goi-teknologia garatuz eta aplikatuz.

Ingeteamen ikuspegia elektrifikazioan erreferente izatea da, produktu, zerbitzu eta sistemak eskai-

niz, pertsonalizatuak eta lehiakorak, pertsonetan eta etengabeko hobekuntzan oinarrituta, Ingeteam, gure bezeroekin lankidetzan, proiektu jasangarri bihurtzeko.

1.3 INGETEAMEN BALIOAK

Ingeteamen ustez, arauak eta prozedurak betetzean pertsonak, integritatea, zorrozatasuna eta profesionaltasuna errespetatzeak ematen die oinarria akziodunekiko, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lotutako profesionalakiko konfiantza eta konpromisoari.

Erakundearen negozio harremanetan erakundeko profesional guztiek balioak eta printzipioak partekatu eta hedatzea espero du Ingeteamek. Bidenabar,

Ingeteamen balioekin bat datozen negozio harremanetan kanpo kolaboratzaile eta hornitzaileek ere pareko jokabidea izatea espero du.

Ingeteamen kultura korporatiboa osatzen duten balioak komunak dira gure negozio eta enpresa guztietan, eta gure nortasunaren ezaugarriak dira; barne eta kanpo jokabideetan zaindu behar dira. Honako hauek dira:

- Enpresa barruan zein kanpoan gurekin elkarrekintzan ari diren pertsona guztiak **errespetatzea**.
- **Zintzotasuna, gardentasuna eta leialtasuna.**
- **Konpromiso soziala**, honako hauekiko konpromiso gisa ulertuta:
 - ✓ Ongizatea.
 - ✓ Garapen ekonomikoa eta teknologikoa.
 - ✓ Ingurumena, jarduna garatzen dugun ingurunearen garapen jasagarrian ekarpen aktiboa eginez.
- **Langileen giza garapena eta garapen profesionala:**
 - ✓ Konfiantza bere gaitasunetan.
 - ✓ Banakako balioa aitortzea.
 - ✓ Gogobetetze pertsonala eta profesionala sustatzen duten lan giroak sortzea.
 - ✓ Garapen eta prestakuntza profesionalerako aukerak eta segurtasuna ematea.
 - ✓ Erabakiak hartzeko konfiantza ematea.
 - ✓ Lana eta bizitza profesionala uztartzea.

- Honako ezaugarri hauekin jokatzeara:
 - ✓ Zorroztasuna
 - ✓ Profesionaltasuna
 - ✓ Autonomia
 - ✓ Baikortasuna
 - ✓ Autokritika
 - ✓ Proaktibotasuna
 - ✓ Efizientzia
 - ✓ Lankidetzaren taldean
- **Bikaintasun konpromisoa** gure barne eta kanpo bezeroentzat.

1.4 JOKABIDE-KODEAREN APLIKAZIO EREMUA

Kode honetan azaldutako jokabide eta portaera jarraibideak nahitaez bete behar dituzte Ingeteameko profesional guztiek, edozein kargu eta kokapen geografiko dutela ere. Enpresako kudeaketa kontrollean eragin erabakigarria dagoen kasu guztietan bete beharreko araudia da.

Ezein profesionalak, edozein maila edo posizio duela, ezingo dio beste bati eskatu Jokabide-Kode honetan jasotakoaren aurka egin dezan, eta jokabideak justifikatzeko ezingo da argudiatu goragoko

agindu bat jaso izana edo Jokabide-Kodea, enpresaren politikak edo indarrean dagoen legedia ez ezagutzea.

Ingeteamen lanak hainbat jurisdikzio eta herrialderen legeen mende daude maiz. Profesional guztiek kasuan kasuko lege, arau eta araudi aplikagarriak betetzea espero da. Zalantza izanez gero, Zerbitzu Juridikoari, Ethics and Compliance Sailari edo Jokabide eta Betetze Batzordeari egin behar zaie kontsulta.

1.5 LANGILEAK

Ingeteamen enplegatutako langileek ez dute urratuko lan egiten duten lekuko legedi aplikagarria, eta nazioarte mailan onartutako jardunbide etikoak errespetatuko dituzte, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako oinarritzko eskubide eta askatasun publikoekin bat etorritik.

Bidenabar, langile enplegatuek jokabide etikoa izango dute, sozialki onartutakoa, haien jarduketa guztietan, lege xedapenak urratu gabe ere enpresari kalte negatiboa egin diezaioken jokabide mota oro saihestuz.

1.6 ZUZENDARITZAKO ETA ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO PERTSONAK

Zuzendaritzan eta Administrazio Kontseiluan erantzukizuna duten pertsonak, beste edozein enplegatuaren betebeharrak eta eskubide berdinak izateaz gain, jokabide eredugarria izan behar dute, eta, horrenbestez, honako hau egin behar dute:

- Haien ardurapean dituzten langile enplegatuek Jokabide-Kodearen eta Ingeteameko gainerako politiken araberrako erantzukizunak ulertzen dituztela bermatzea.
- Edozein aukera baliatzea Jokabide-Kodea bera eta kodea bete behar dela langile enplegatu

artean hedatzeko eta etikaren garrantzia indartzeko.

- Langile enplegatuek ezinegonak plazaratzeko giro eroso sortzea.
- Jokabideak baloratzea Jokabide-Kodeari eta Ingeteamen beste politika batzuei dagokionez, lan profesionala ebaluatzean.
- Inoiz ez da enpresaren onerako etekin komertzialak edo bestelakoak lortzea bultzatuko edo aginduko horretarako Jokabide-Kodea edo indarrean dagoen legedia urratu behar bada.

1.7 JOKABIDE ETA BETETZE BATZORDEA

Jokabide eta Betetze Batzordea (aurrerantzean Betetze Batzordea) izango da Jokabide-Kodea eta kultura etikoa taldearen barruan hedatu, ezagutu eta betetzea zainduko duen Ingeteamen barne organoa.

Batzordea Ingeteamen funtzionalki dagokion Administrazio Kontseiluak izendatuko du, eta horri eman beharko dio informazioaren berri, aldizka. Presidente eta idazkaria Administrazio Kontseiluak izendatuko ditu; bertako kideen artetik komenigarritzat jotako pertsonak izango dira.

Administrazio Kontseiluak kontrol eta ekimenerako botere autonomoak eman dizkio Ingeteamen barruan, taldeko langile guztiek indarrean dagoen

araudia betetzea bermatze aldera, bereziki zigor arloan, baita Jokabide-Kodea ere; sozietate, negozio unitate eta ekoizpen unitate eta horien profesional guztiak hartzen ditu barne.

Horrez gain, Salaketa Kanala ere kudeatzen du, eta erabateko konfidentziasunez zaintzen ditu Jokabide-Kodea eta araudi aplikagarria hipotetikoki urratzeari buruzko salaketen txostenak. Irregularitasun horiek ikertzeko kasu bakoitzaren inguruabarreri egokitutako prozedura inpartziala izapidetzen da.

Araudi propioa du, dagozkion funtzioak eta ardurak definituz.

1.8 HORNITZAILEAK ETA LOTURA DUTEN HIRUGARREN ALDEAK

Hornitzaileek negozio jokabide zintzo eta zuzenekiko konpromisoa izatea espero du Ingeteamek. Aplikazio eremu zehatza Hornitzaileen Jokabide-Kodean garatu da; Jokabide-Kode hau osatzen du eta hornitzaileek onartu egin beharko dute.

Horrez gain, lotura duten hirugarren aldeengana ere hedatzen da, esaterako ordezkariak, azpikon-

tratistak, eragile komertzialak, “businesspartner” eta “associatedperson” delakoak, aholkulariak, kanpo banatzaileak, praktika aldian dauden pertsonak, bekadunak eta kolaboratzaileak. Hornitzaileak aukeratu eta harremanak izaterakoan horrelako gaiak kontuan hartuko ditu Ingeteamek.

02

BARNE JOKABIDEA



Enpresako langile guztiengandik espero den barne jokabideari buruzko arau orokorra, legea bete egin behar dutela, une oro zintzotasunez, errespetuz eta zuzentasunez jokatu behar dutela, haien ekintzen erantzule izan behar dutela, eta fede onez eta Ingeteam taldearen interesen alde jokatu behar dutela da.

Jarraian, Ingeteameko langileengandik espero diren jokabideen jarraibide orokorrak garatuko dira; honako hauek betetzen ez badira Jokabide-Kodea larriki urra daiteke, eta horrek diziiplina kaleratzea eragin dezake.

2.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEA

Profesionalek ez dute urratuko Ingeteamen negozio harremanak eta lan egiten duten herrialdeetako araudi legala eta legedi aplikagarria, eta jardunari lotutako hirugarrenek eta bestelako erakundeek aipatutakoa betetzea zainduko dute.

Egindako edozein jarduera eta edozein lan profesional legala izateaz gain, zintzoa, etikoa, sozialki onartua eta Ingeteamen balioekin bat datorrena izan beharko da.

2.2 GIZA ESKUBIDEAK ETA LAN BALDINTZA DUINAK ERRESPETATZEA

Ingeteamen jarduera guztiak Giza Eskubideak errespetatuz eta Nazio Batuen Mundu Itunean ezarritako printzipioak betetzeko konpromisoarekin garatzen dira, baita Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenetan eta ELGAko gomendioetan jasotako lan printzipioei dagokienez ere.

Helburu horrekin, Ingeteam barruan betetzeko politikak eta prozedurak ezarri dira, bereziki auzi hauei dagokienez:

- Hurrek lan egitea arbuatzea, eta haurren enpleguarekin ekoizitako edozein produktu eskuratzea debekatzea, tokiko legediarekin eta Lanaren Nazioarteko Erakundearekin lerrokatuta.

- Nahitaezko lana edo lan neketsua arbuatzea eta debekatzea, baldintza latzetan egindakoa, langileen borondatearen aurka edo zigorren mehatxupean.
- Profesionalei elkartzeko askatasuna eta eskubidea erraztea, baita negoziazio kolektiborako ere.
- Biltzeko, ordaintzeko eta konpentsatzeko baldintza justuak ezartzea, lan profesionalarekin bat etorritik, baita, posible den neurrian, kontziliazioa erraztea ere.

2.3 ANIZTASUNA, AUKERA BERDINTASUNA ETA TRATU PAREKIDEA

Ingeteameko langileek, beste langile batzuekin lan harremanak izaterakoan, errespetu, duintasun, ekitate eta aniztasun irizpideekin bat etorri jokatzeke betebeharra izango dute, bereziki taldeak eta/edo pertsonak kudeatzen dituzten langileek.

Sustatuko dituzten jarduera profesionalak oinarritat eduki beharko dute errespetua, elkarrekin kolaborazioa, pertsonen berdintasuna edozein motatako desberdintasunen gainetik; aniztasuna eta bizikidetzaz zuzen kudeatuko dituzte, bereziki erreparatuz desgaitasun edo aniztasun funtzionala duten pertsonen laneratze eta arretari, eta lana lortzeko, garatzeko eta profesionalki sustatzeko aukera berdina eskainiko dira, gaitasun eta merezi-mendu baldintzetan oinarrituz.

Ingeteamen ez da inolako bereizketa modurik baimenduko, ezta jazarpen edo abusu fisiko, sexual, psikologiko edo ahozkorik edo tratu umiliagarrikeri ere; eskura dauden neurri guztiak bideratuko dira identifikatutako edozein ekintza edo egoera argitu eta zuzentzeko. Horretarako, prebentzioarako eta erantzuteko beharrezko prozedurak eta protokoloak ezarri dira.

Lengoaia diskriminatzailea erabiltzea erabat debekatuta dago, edozein komunikazio korporatibotan, barrukoa edo kanpukoa, eta erakunde barruan zentzuzko lengoaia inklusiboa sustatuko da.

2.4 SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Ingeteameko langile guztiek laneko segurtasunari eta osasunari buruzko arauak ezagutu eta bete behar dituzte, eta beren jardueren eraginpean egon daitekeen edozein pertsonaren segurtasuna zaindu behar dute. Ingeteamek ez du onartzen alkohola edo segurtasun- eta osasun-arazoak arriskuan jar ditzakeen beste edozein substantzia kontsumitzea egindako edozein zereginetan. Horretarako, beharrezko baliabide guztiak jarriko dira eskura, bai eta enplegatuentzako derrigorrezko prestakuntza ere, langileek beren jarduera profesionala modu seguruan, ingurumen osasungarrian eta ingurumena errespetatuz egin dezaten.

Ingeteamek, bai bere langileen, bai kanpuko arriskuak minimizatzeke beharrezkoak diren politikak eta prozedurak izateke konpromisoa har-

tzen du. Horretarako, laneko segurtasun- eta osasun-politikak garatuko dira, eta aplikatu beharrezko legerian xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren prebentzio-neurriak hartuko dira, bai eta etorkizunean gara daitekeen beste edozein arau-xedapen ere.

Langileek beren nagusiari edo prebentzioaren arduradunari jakinarazi behar diote alderdi horien inguruan ikusitako edozein anomalia, gorabehera edo arrisku.

Era berean, bidezko ekintzak sustatuko dira, enpresarekin harremanak dituzten hirugarrenek beren konpainietan Ingeteamek hartutako neurriak ezar ditzaten.

2.5 INGURUMENAREN BABESA

Ingeteam konprometuta dago ingurumena errespetatu eta babestearekin, klima-aldaketaren aurkako borrokarekin, jarduera ekonomikoen deskarbonizazioarekin, trantsizio energetikoarekin eta trantsizio energetikoarekin gizartearen elektrifikazio iraunkorraren bidez.

Ildo horretan, Ingeteamek ingurumen-araudia betetzen du, eta nazioarteko estandarrak eta sektore-gomendioak lortu nahi ditu, beharrezko politikak, prozedurak, ekipoak eta bitartekoak emanez.

2.6 USTELKERIA SAIHESTEA

Ustelkeriari lotutako jarduerak saiheste aldera, Ingeteameko langileek ezingo dute opari, gonbidapen, mesede edo konpentsaziorik eskaini, eman, eskatu edo onartu, zuzenean edo zeharka, esku-dirutan edo gauzatan, edozein izaera duela ere, eragina izan badezake karguaren ondoriozko fun-

tzioak betetzearekin lotutako erabakiak hartzeko prozesuan.

Bezero, hornitzaile, erakunde publiko eta entitate politikoen ustelkeria saihesteko Ingeteamek hartutako neurriak aurrerago azalduko dira.

2.7 INTERES GATAZKA

Ingeteamerako lanean dauden bitartean langileek enpresaren interesen alde jokatu beharko dute beti. Interes gatazka profesionalaren jarduera eta harreman pertsonalek eragina daukatenean Ingeteamen alde jokatzeko gaitasunean, edo eragina daukatela dirudienean sortzen da.

Hain zuzen ere, honako egoera hauek balizko gatazka egoera gisa hartuko dira, eta jakinarazi egin beharko dira:

Antzeko jarduerengatik:

- Langileak berak, bere senideek edo berari lotutako beste pertsona batzuek Ingeteamek garatzen duen jardueraren izaera bereko edo jarduera hori osatzen duen jarduerak egitea, zuzenean edo zeharka, haien kabuz edo beste erakunde edo sozietate baten bitartez.

Bezero edo hornitzaileekiko loturengatik:

- Langileak berak, bere senideek edo berari lotutako beste pertsona batzuek Ingeteamekin zerbitzuak eta/edo ondasunak trukatzea dakarren

edo eragin dezakeen jarduera oro egitea, zuzenean edo zeharka, haien kabuz edo beste erakunde edo sozietate baten bitartez, adostutako ordainketa araubidea edozein dela ere.

Kontratatzerakoan edo dagozkien funtzioak betetzerakoan, langile guztiek haien interesen eta Ingeteamen interesen arteko gatazka eragin dezakeen edozein egoera jakinarazi egin beharko dute. Beste baten interes gatazka jakin edo susmatuz gero ere komunikatu egin beharko da.

Horren haritik, langileei, baldin eta dagokien funtzioaren beharrezko profesionaltasuna edo objektibotasuna zalantzan jar dezakeen interes pertsonalen gatazkak sortuz gero, idatziz jakinaraz diezaioten zuzeneko arduradunari eskatzen zaie, eta horren kopia igor dezaten Jokabide eta Betetze Batzordera, kasuan kasuko neurriak hartzeari ekiteko, Ingeteamen eta kaltetutako pertsonen onerako eta, hala badagokio, interes gatazkan balizko egoera baimendu eta debekatzeko.

2.8 ESKLUSIBOTASUNA ETA INGETEAMETIK KANPOKO BESTE JARDUERA BATZUETAN ARITZEA

Aurreko atalari dagokionez, Ingeteameko langileek ezingo diete zerbitzu edo jarduera profesionalik eman pareko jarduera garatzen duten beste enpresa edo entitate batzuei, edo Ingeteamek jarduten duen sektoreetan aritzen direnei, zerbitzu ordainduak izan zein ez.

Ingeteamekin dituzten kontratu harremanen ondoriozko jarduerak ez diren bestelako jarduerak garatu ahalko dituzte jarduera horiek ez badute edo ezin badute interes gatazkarik eragin, edo ez ba-

dute eragiten enpresan betetzen duen jardueraren funtzioak betetzean espero den eraginkortasuna murriztea, bateraezinak ez badira eta lanaldi barruan egiten ez badira.

Ingeteametik kanpoko edozein jarduerak eragina izan badezake enpresako lana edo lan profesionallean, aldeztu aurretik baimendu beharko du idatziz kasuan kasu Pertsonen Sailak, Jokabide eta Betetze Batzordeari ere kopia igorri.

2.9 INGETEAMEN ONDASUNAK, AKTIBOAK ETA BALIABIDEAK ERABILTZEA

Langileek eraginkortasunez erabiliko dituzte Ingeteamen ondasunak eta zerbitzuak, eta Ingeteamen ondasunak eta zerbitzuak ez dituzte haien mesederako erabiliko edo bereganatuko; enpresan duten posizioa ez dute erabiliko ondare abantailak

edo abantaila pertsonalak lortzeko, ez eta negozio aukera propiorik lortzeko ere ez.

Enpresaren edozein ondasun, aktibo, eskubide, erregistro, zerbitzu edo informazio Ingeteamen ondasun eta zerbitzu gisa ulertzen da.

2.9.1 ERABILERA ARAU OROKORRAK

Ingeteamen aktiboetan inolako kalterik ez eragitea zainduko dute langileek. Hartara, erabilera arau hauek bete beharko dituzte:

- Esku artean dituzten edo sarbidea daukaten aktiboak zaindu eta babestuko dituzte, hala bada-gokio, aktibo horiek babesteko ezarritako barne kontrolerako prozedurak betez.
- Ingeteamen titulartasuneko aktiboak ez dira eskualdatuko, lagako, ezkutatuko, etab., hartzeko-

dunen aurrean kasuan kasuko erantzukizunak betetzea saihesteko.

- Langileak haien kargura dituzten pertsonen kasuan, zorrotz kontrolatu eta ikuskatu beharko dute haien mende dauden langileek baliabideak eraginkortasunez erabiltzen dituztela.

2.9.2 KOMUNIKAZIOETARAKO GAILUAK ERABILTZEA

Ingeteamen komunikazioetarako elementu edo gailuak (ordenagailuak, sakelakoak, etab.) enpresan jarduera profesionalak egiteko erabili beharko di-

tuzte langileek. Horrelako baliabideak gai partikularretarako erabiltzea baimentzen da, baina erabilera zentzuduna izan beharko da.

2.9.3 EKIPO INFORMATIKOEN ERABILERA ETA ZIBERSTGURTASUNA

Langileek eraginkortasunez eta modu zuzenean erabili beharko dituzte ekipamendu eta programa informatikoak (ordenagailuak, tabletak, sakelako telefono korporatiboak eta horiei lotutako softwarea), baita haien esku jarritako fitxategi eta dokumentu elektronikoak ere.

Bidenabar, ekipo informatikoak erabiltzean langileek errespetatu egin beharko dituzte Ingeteamek ezarritako segurtasun informatikoko neurriak; horrez gain, haien esku jarritako baliabideak zuzen eta modu egokian erabili beharko dituzte.

Langileek ezingo dute software kaltegarrikerik erabili edo instalatu, ezta bestelako programa edo aplikazio informatikorik ere ez, erabiltzeko lizentzia ofizialaren estaldura izan gabe.

Ildo horretan, langileek arretaz beteko dituzte softwareari, hardwareari edo zibersegurtasunari buruzko arauak, prozedurak eta jarraibideak, horiek ez betetzeak arrisku handia ekar baitiezaioke Ingeteami.

2.9.4 INTERNETEN ETA POSTA ELEKTRONIKOAREN ERABILERA

Ingeteamek eginkizun profesionalak eraginkortasunez betetzeko beharrezko baliabideak jarriko ditu langileen esku, Interneterako sarbidea eta posta elektronikoa barne; oro har, soilik esparru profesionalean erabili ahalko dira, eta puntualki arlo pertsonalean erabiliz gero, langileak ezin du pribatasunik espero, hau da, enpresak gailu elektrikoak edukira eta posta profesionalera sartzeko aukera izango du, Jokabide-Kodea edo legedi aplikagarria larriki urratuz gero edo jokabide desegokia izanez gero.

Nolanahi ere, Jokabide-Kode honen aurkako edukia duten Interneteko webguneetara sartzea debekatuta dago, baita legez kanpoko jarduerak, jarduera ez etikoak edo gizartean onartzen ez diren edukiak dituztenak bisitatzea ere.

Posta elektronikoa profesionala tentuz erabili behar da, Ingeteamen izenean jokatzeko dakarrelako, eta, batez ere, lege edo kontratu erantzukizunak eragin ditzaketen informazio edo agiriak eskaintzen direnean.

2.9.5 JOKABIDEA INTERNETEN, SARE SOZIALETAN ETA FOROETAN

Ingeteameko profesionalek Interneten, sare sozialetan edo foro profesialetan parte hartzean argi utzi beharko dute beti maila pertsonalean ari direla, eta ez dela Ingeteamen iritzia. Gai profesionalen inguruko informazioa, iritziak eta adierazpenak egiazkoak izango dira beti, eta ez konfidentzialak.

Ingeteametik lan lotura aipatzea bereziki zaindu beharko da, eta aplikagarriak izango dira kode honetan jasotako alderdiak, bereziki diskriminazioari,

iritzi iraingarri edo asmo txarreko oharrei dagokionez, jabetza intelektuala eta industrial, edo bezero, hornitzaile edo Ingeteameko barne izaerako edozein informazio konfidentzial edo erreserbatu hedatzeari dagokionez.

Bestalde, debekatuta dago langileek enpresaren irudia, izena edo markak erabiltzea webguneak irekitzeko edo foroetan eta sare sozialetan Ingeteamen izenean alta emateko.

2.9.6 ENPRESAREN KREDITU TXARTELA ERABILTzea

Enpresaren kreditu txartela Ingeteamek zenbait langileri emandako ondasun bat da, izaera profesionaleko gastuak ordaintzeko; ez da, inolaz ere ez, gastu pertsonalak ordaintzeko. Hala, lan arloko eginkizunak modu eraginkorragoan egitea da helburua, langileak modu egokian erabiliko duela sinesteko konfiantzako esparruan.

Enpresako kreditu txartela daukaten langileek epe barruan eta dagokion gisan aurkeztu beharko dute gastuak baimentzeko orria, euskarri agiriekin batera, baita izaera pertsonaleko gastuen balizko akatsen komunikazioa ere.

2.9.7 ENPRESAREN IBILGAILUAK ETA GASOLINA TXARTELAK ERABILTzea

Ibilgailu korporatiboak eta gasolina txartelak Ingeteamek zenbait langileri emandako tresnak dira, dagokien eginkizun profesionala betetzea errazteko; ibilgailuaren erabilera nagusiak jarduera profesionalak dira.

Langile horiek arlo horretan zehazki ezarritako prozedurak eta politikak bete beharko dituzte, baita errepideetako araudi eta legedi aplikagarria ere, bereziki baimendutako abiadurari, alkoholaren

kontsumoari edo beste edozein substantzia estu- pefazienteri dagokionez. Profesionalak gasolina txartelen gastuen ordainagiriak eta euskarri agiriak aurkeztu beharko ditu.

Ingeteam taldeak ibilgailua inguruabar jakin batzuetan gai pertsonaletarako erabiltzea baimentzen du, betiere berariazko politika eta prozeduretan baimendutako irizpideak betez.

2.9.8 EBASKETA ETA BIDEGABEKO JABETzea

Ingeteamek aktiboak eta ondasunak ematen ditu langileek dagokien eginkizun profesionala eraginkortasunez bete dezaten, eta aktibo eta ondasun horiek ezingo dira modu pertsonalean erabili.

Enpresaren produktu bat, dirua, ekipoak edo informazioa baimenik gabe kentzea Ingeteamen ondasunak ebatsi edo bidegabeki jabetze gisa ulertzen da, edo gastu edo orduei buruz nahita agiri faltsuak

edo informazioa ematea edo funtsak desbideratuz lapurtzea, edo enpresaren kreditu txartelarekin ordaindutako gastu pertsonalak ezkatzea ere Jokabide-Kodearen urraketa larri gisa hartuko da.

Horrez gain, beste profesional batzuen ondasunak lantokian kentzea ere ebasketa gisa hartzen da, enpresako ondasunak ebastea bezala.

2.9.9 MAILEGU PERTSONALEN DEBEKUA

Ingeteamek debekatu egin du langileei maileguak ematea, dela aktibo bat, dela dirua. Edozein kasu identifikatuz gero, ebasketa edo bidegabeko jabetza modura hartu ahalko da.

Debekatuta dago enpresako profesionalak bezero edo hornitzaileen diru kopuruak jasotzea, kontu korrante pertsonaletan; horrelakorik identifikatuz gero, ustelkeria kasu baten pare jarri ahalko da.

2.9.10 IRUDI KORPORATIBOA, OSPEA ETA INGETEAM IDENTIFIKAZIOA DUEN MATERIALA ERABILTzea

Ingeteameko langileek Ingeteamen irudia, izena, markak edo logotipoak erabiliko dituzte bertan jarduera profesionala zuzen garatzeko, irudi korporatiboak eta ospeak izan dezakeen eraginez jabetuta. Ingeteamek baimena ematen du profesionalak Ingeteam material identifikagarria erabil dezaten, haien jarduera pertsonaletan lan ordutegitik kanpo,

baina Kode honetan jasotako alderdiak aplikagarriak izango dira, jarduera zilegiak, etikoak edo sozialki onartutakoak izateari dagokionez.

Nolanahi ere, Ingeteameko langileek ezingo dute laneko arropa kaltetu dezaketan jardueretan erabili, eta, ondoren, enpresan eginkizunak betetzeko erabili.

2.10 INFORMAZIO ETA DOKUMENTU PROFESIONALAK ERABILTzea

2.10.1 ENPRESA SEKRETUAK ETA INGETEAMEKO INFORMAZIO KONFIDENTZIALA ERABILTzea

Langileek sekretu profesionala gorde behar dute sekretu profesional eta informazio ez publiko edo konfidentzialesi dagokienez, haien jarduera profesionala garatzearen ondorioz jakin dituztenak, bezero, hornitzaile edo enpresarenak izan edo horietatik etorri zein beste profesional batzuenak edo edozein hirugarren alderena izan, lantokitik kanpo zein lan orduen barruan, baita lan harremana bukatu ondoren ere.

Ingeteameko langileek Betetze Batzordeari jakinarazi beharko diote enpresatik kanpoko langile edo beste profesional batzuek enpresa sekretu batera sarbide ez baimendua baldin badute, edo informazio konfidentzial edo ez publikora.

Langileek datu edo informazio profesionala eskusiboki Ingeteamen dagokien jarduera profesionala

garatzeko erabili beharko dute, eta informazio hori helburu berdinerako jakin behar duten beste profesional batzuei baino ezingo diote eman.

Ingeteamen lanean egoteari esker lortutako edozein datu, informazio edo eduki haien edo hirugarrenen onurarako erabili edo komunikatzeari uko egingo diote taldeko profesionalak.

Konfidentzialtasun betebeharra Ingeteamen lana bukatu ondoren ere indarrean egongo da; enpresarekiko harremana eteteen langileak enpresari lotutako edozein material bere esku izanez gero material hori itzultzeko betebeharra ere barne hartzen du.

2.10.2 HIRUGARRENEN INFORMAZIO KONFIDENTZIALA ETA ENPRESA SEKRETUAK

Ingeteamek informazioaren pribatutasuna errespetatu eta babesten du, bereziki bezeroena, hornitzaileena, hirugarrenena edo entitate lehiakideena denean, jardun profesionala tarteko horren berri izanez gero.

Lehenago beste entitate bati zerbitzuak eman izanagatik langileek beste entitate horren enpresa sekretuak, informazioa edo dokumentazioa lortuz gero, ezingo dute erabili. Hau da, debekatuta dago haien aurreko enpresen informazio edo dokumentazio konfidentzial edo ez publikoa Ingeteamen erabiltzea.

Langileek ezingo dizkiete hornitzaileen edo bezeroen datuak Ingeteametik kanpoko beste sozietate batzuei laga, datuak jasotakoan izandako helburua ez den beste helburu batzuekin modu komertzialean ustiatzeko.

Merkatuko eta hirugarrenen informazioa biltzea onargarria da, publikoki eskuragarri dagoen informazioaren bitartez edo modu legal eta etikoan egindako kontsultei esker. Hirugarrenen informazioa biltzeko gaitasunari muga hauek aplikatuko zaizkio:

- Informazioa lortzeko legez kanpoko jarduera edo jarduera ez zilegi batean parte hartzea.
- Hirugarrenen eta lehiakideetako baten arteko konfidentziasun akordio bat urratzearen ondorioz argitaratu zela uste den edo horri esker lortutako informazioa onartzea, jakitera ematea eta erabiltzea.
- Informazio “patentatu” edo “konfidentzial” gisa sailkatutako edo hala sailkatu dela uste den informazioa jakinaraztea eta erabiltzea enpresako Zerbitzu Juridikoekin aldez aurretik kontsultatu gabe.

2.11 PRIBATUTASUNA ETA DATU PERTSONALAK BABESTEIA

Ingeteamek langile, hornitzaile eta bezero guztien pribatutasuna errespetatzen du, baita bazkide eta kolaboratzaileena ere.

Datu pertsonalak arduraz landuko dira, eta une bakoitzean aplikagarria den pribatutasun legedia betez.

Ingeteam osatzen duten langileek, izaera pertsonaleko datuak lantzen badituzte, legedi aplikagarriarekin bat etorri jardun beharko dute; aldi berean, Ingeteamen Pribatutasun Batzordeak landutako jarraibideak eta protokoloak zaindu beharko dituzte.

Nolanahi ere, Ingeteam osatzen duten langileek pertsona guztien intimitatea errespetatu eta zaintzeko betebeharra izango dute, datu horietara sarbidea izan badute Ingeteam barruko eginkizunak garatzean, datu horiekiko dagokien sekretua gordez. Aurretik azaldutakoak edozein datu pertsonali erasango dio, identifikagarriak, ekonomikoak, osasu-

nekoak zein beste edozein arlokoak izan, titularra nolabait identifikatzen badute eta, horrenbestez, titularraren arlo pribatu eta pertsonalari erasaten badiote.

Datu pertsonalak modu proportzional eta mugatua landuko dira, hala:

- Jarduera garatzeko zorrotz behar diren datuak baino ez dira bilduko, landuko eta erabiliko.
- Datu horiek biltzea, lantzea eta erabiltzean segurtasuna, egiazkotasuna eta zehaztasuna bermatuko dira, pertsonen intimitate eskubidea zainduz eta legedi aplikagarritik eratorritako betebeharrak betetzea bermatuz.
- Bete behar duten funtzioa dela medio horretarako baimena duten pertsonen baino ez dute izango sarbidea datu horietara, hain zuzen ere dagozkien funtzioak betetzeko beharrezkoak diren neurrian.

2.12 JABETZA INTELEKTUAL ETA INDUSTRIALEKO ESKUBIDEAK ERRESPETATZEA

Langileek errespetatu egingo dituzte Ingeteamen jabetza intelektualeko eskubideak, ikastaro, proiektu, programa, sistema informatiko, prozesu, teknologia, “knowhow” eta, oro har, Ingeteamen sortu edo garatutako edozein edukiri dagokionez, dela jarduera profesionalaren ondorioz, dela hirugarrenen ondorioz, erregistratuta egon zein ez. Hartara, datuok enpresatik kanpo erabiltzeari uko

egin beharko diote, eta datuok biltzeko material guztia itzuli egin beharko dute hala eskatzen zaienean.

Horrez gain, Ingeteametik kanpoko bestelako erakunde edo hirugarren pertsonak dituzten jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak ere errespetatuko dituzte. Hain zuzen ere, hirugarrenen edozein eduki erabiltzeko alde aurretik horretarako baimena eman beharko dute.

2.13 ERAKUNDEAN INFORMAZIO FINANTZARIOA ETA EZ FINANTZARIOA ERREGISTRATZEA, ZAINZTEA ETA JAKINARAZTEA

Langileek zorrotzak eta zintzoak izateko ahalegina egin beharko dute barne informazioa edo hirugarrenentzako informazioa prestatzean. Gogorarazi behar da Jokabide-Kodearen urraketa larri gisa hartzen dela transakzioak, jarduerak edo edozein eragiketa nahita faltsutzea edo gaizki erregistratzea, zein euskarri dokumentazio faltsua sortzea edo benetakoa ezkutatzea.

Ingeteameko langileek Ingeteameko erregistroak gorde edo bota beharko dituzte, ezarritako gordetze politikekin bat etorritik, baita indarrean dagoen lege-

di aplikagarriarekin bat etorritik ere. Enpresako Zerbitzu Juridikoek jarraibideak eman ahalko dituzte erregistroak gordetzeari dagokionez, administrazio edo erakunde publiko batek ikerketa abiatuz gero edo auzi erreal edo posiblea sortuz gero.

Langileek zaindu egingo dute eragiketa eta transakzio guztiak kasuan kasuko kontabilitate erregistroetan zehatz eta argi jaso daitezkeen, eta egindako transakzioen irudi fidela eman dezaten, baita barne zein kanpo ikuskarien esku egon daitezkeen ere.

2.14 LANERAKO LEKUA ETA DENBORA

Langileek zorrotz bete beharko dute kontratu bidez ezarritako ordutegia, esleitu zaien lantokian, eta presentzia eta ordutegia kontrolatzeko ezarritako prozedurak zintzotasunez betetzeko konpromisoa hartzen dute.

Langileek ez dute jarduera pertsonaletan parte hartuko laneko ordutegian, jarduera horiek lan eran-

tzukizunak betetzea eragozten badute edo eragina badute, salbu eta ezarritako lan kontziliazioko politika baldintzak eta irizpideak betetzen badira.

Bidenabar, ezingo dituzte Ingeteameko instalazioak eta ondasunak eginkizun profesionalarekin loturirik ez duten jardueretarako erabili.

03

BEZEROEKIKO NEGOZIOEN PORTAERA



3.1 KALITATEA ETA BIKAINASUNA PRODUKTUETAN ETA ZERBITZUETAN

Ingeteameko langileek bezeroarekiko bikaintasun eta zerbitzu bokazioz jokatu dute beti, hartutako konpromisoak betez eta sortutako arazoen aurrean irtenbideak azkar eta egoki proposatuz. Horrez gain, eskainitako produktu eta zerbitzu guztiek osasun, segurtasun eta ingurumenerako arriskurik ez eragiteko egiten dute lan.

Langileek etengabeko harremana izango dute bezeroekin, haien beharrianak zaintzeko, hobekuntza eta irtenbide lehiakorak proaktibotasunez proposatzeko kalitate gorenarekin, betiere haien espektatibak gainditzeko xedez.

3.2 BEZEROEKIN USTELKERIA SAIHESTEKO NEURRIAK

Ingeteamek beharrezko politikak eta prozedurak ezarriko ditu langileek zilegitasunez, modu etikoan eta errespetuz egin ditzaten negozio jarduerak bezeroekin. Jarraian bezeroekin ustelkeria saihesteko jarraibide zehatzak bildu dira:

- Ingeteameko langileek ezingo dute oparirik, kontraprestaziorik, konpentsaziorik eskaini, hitzeman, eman, eskatu edo onartu, pertsona fisiko edo juridiko batengandik edo pertsona fisiko edo juridiko bati, Ingeteamek edozein motatako harremana baldin badu horrekin, ezta loturarik gabeko hirugarren batengandik ere ez.
- Bezeroei eskainitako artikulua eta kortesiazko opariak soilik onartuko dira promozio edo propaganda objektuak baldin badira, betiere ezin bada interpretatu hartzailaren borondatean eragin dezakeen zerbait bezala, eta tokiko erabilera eta legedi aplikagarriarekin bat etorritik.
- Baimenduta dago hospitalitate gastuak egitea, arreta komertziala eskaintzea eta ekitaldietara gonbidatzea, betiere tokiko erabilera sozialetan zentzuzkotzat jotako mugak gainditzen ez badira eta legedi aplikagarriak ahalbidetzen badu.
- Bezeroei eremu profesionalean bidaiak eta ostatuak ordaintzea debekatuta dago, salbuespen bakarrarekin: soilik ordaindu ahalko da kasuan kasuko zuzendariak aldeztu aurretik eskaera egin ez gero Jokabide eta Betetze Batzordeari, eta horrek baimena ematen badu, ustelkeria arriskurik ez dagoela ebaluatu ondoren.

Alderdi hauek interpretatzean edozein zalantza sortuz gero, zuhurtziazko irizpidea aplikatuko da, opari eta gonbidapen orori uko eginez. Nolanahi ere, hierarkian gorago dagoen arduradunari edo Jokabide Batzordeari galdetu ahalko zaio.

3.3 JOKABIDE ZINTZOA ETA EPE LUZEKO LOTURA BEZEROEKIN

Langileek ezingo dute inolako informaziorik eman edo jarduketarik egin horrek zuzenean edo zeharka bezeroei edo edozein hirugarreni iruzurra egitea eragin badezake, horiek produkturen bat kontratatu edo eragiketaren bat egitea lortzeko asmoz, baldin eta ezaugarri errealak jakinez gero kasuan kasuko bezero edo hirugarren horrek ez badu aipatutakoa egin edo kontratatuko.

Ingeteamek baztertu egiten ditu praktika komertzial txarrak, bezeroa akatsera eraman dezaketen marketin eta publizitate estrategiak, zintzotasun, gardentasun eta egiazkotasun printzipioen aurkakoak direlako.

0

HORNITZAILEEKIKO
NEGOZIOETAKO
PORTAERA



4.1 HORNITZAILE KONPROMETITUAK

Ingeteamek konpromisoa du integritate, zintzotasun eta konfiantzako balioekin negozio harremanetan, jardueretan eta jokabide guztietan, eta hornitzaileengandik ere konpromiso hori espero du, eta enpresak lotura duen hirugarren alde guztiekin, besteak beste, azpikontratatistak, eragile komertzialak, businesspartners” eta “associatedpersons” delakoak, aholkulariak eta antzekoak, oro har “hornitzaile” izenarekin izendatzen direnak.

Ingeteameko hornitzaileek hornitutako produktuak eta zerbitzuak bezeroei eta gizarteari ematen zaien balio kateko ezinbesteko atala dira, eta, horren-

bestez, legedia zorrotz betetzearekin konpromisoa hartzea eskatzen zaie, printzipio etiko berdinekin: jasangarritasuna, integritatea eta giza eskubideak defendatzea, ustelkeria saihestea, jabetza intelektuala eta industrialak babestea, segurtasuna, osasuna eta ingurumena zaintzea, eta gatazka eremuetako mineralak saihestea.

Horren haritik, Ingeteamek Hornitzaileen Jokabide-Kodea garatu du, negozio harremanetan alderdi horiek zehazki eskatzeko.

4.2 HORNITZAILEEKIN USTELKERIA SAIHESTEKO NEURRIAK

Ingeteameko langileek modu zilegian, etikoan eta errespetuz izango dituzte harremanak zerbitzu eta ondasunen hornitzaileekin.

Ingeteamek beharrezko prozedura eta politikak ezarriko ditu hornitzaileen aukeraketa gardentasun eta objektibotasun irizpideen arabera ere egin dadin, uztartuz, batetik, hornidura baldintzarik onenak lortzeko Ingeteamen interesa, eta, bestetik, hornitzaile etiko eta arduratsuekin harreman egonkorak izateko komenigarritasuna.

Jarraian hornitzaileekiko ustelkeria saihesteko jarraibide zehatzak bildu dira:

- Ingeteameko langileek ezingo dute opari, gonbidapen, mesede edo konpentsaziorik eskaini edo onartu, zuzenean edo zeharka, eskudiru-

tan edo gauzatan, edozein izaera duela ere, eragina izan badezake karguaren ondoriozko funtzioak betetzearekin lotutako erabakiak hartzeko prozesuan.

- Hornitzailearen logotipoa duten propaganda edo promozio objektuak baino ezingo dira onartu, balio txikia badute, betiere ezin bada interpretatu hartzailearen borondatean eragiteko helburuz.
- Edozein gonbidapen, opari, eskaintza edo arretari uko egingo zaio, hartzailearen objektibotasunean eragiteko borondate gisa interpretatu ahal bada maiztasuna, ezaugarriak edo inguruabarrak direla medio, eta zuzeneko arduradunari eta Jokabide eta Betetze Batzordeari jakinaraziko zaio.

- Aurretik ezarritakoaren aurka edozein opari jasoz gero, tokiko erabilera eta erabilera sozialak tarteko jasotako opariak barne (esaterako, Gabonetako opariak), eta itzultzea posible ez bada, Marketin Korporatiboko Sailean entregatuko da edo, bestela, Giza Baliabideen Sailean; bertan, agiria eman eta Ingeteamen oparien inbentarioan jaso ondoren, oparia interes sozialeko helburuetara bideratuko da, Erantzukizun Sozial Korporatiboko politikan ezarritakoaren arabera.
- Hornitzaileen partetik ekitaldietara gonbidatu edo arreta komertziala eskaintzeari dagokienez, baimenduta daude, betiere puntualak badira, tokiko erabilera sozialetan zentzuzkotzat jotako mugak gainditzen ez badira eta legedi aplikagarriak hala baimentzen badu. Salbuespen kasuetan kopurua gehiegizkoa edo neurritz kanpoko

bada, jakinarazi egin beharko da, hierarkian goragoko arduradunak edo arduradunak eta Jokabide eta Betetze Batzordeak adostasuna eman dezaten.

- Hornitzaileek edo hirugarrenek Ingeteameko langileei ordaindutako bidaiak eta ostatuak onartzea debekatuta dago, salbuespen bakarrarekin: soilik onartu ahalko da kasuan kasuko zuzendariak aldeztu aurretik eskaera eginez gero Jokabide eta Betetze Batzordeari, eta horrek baimena ematen badu, ustelkeria arriskurik ez dagoela ebaluatu ondoren.

Alderdi hauek interpretatzean edozein zalantza sortuz gero, zuhurtziazko irizpidea aplikatuko da, opari eta gonbidapen orori uko eginez, edo hierarkian goragokoari edo Jokabide Batzordeari kontsulta eginez.

4.3 JOKABIDE ZINTZOA ETA EPE LUZEKO LOTURA HORNITZAILEEKIN

Langileek ezingo dute inolako informaziorik eskaini edo jarduketarik egin horrek zuzenean edo zeharka Ingeteameko hornitzaileei edo edozein hirugarreni iruzurra egitea eragin badezake edo nahasgarriak badira, horiek produkturen bat kontratatu edo

eragiketaren bat egitea lortzeko asmoz, baldin eta ezaugarri errealak jakinez gero kasuan kasuko hornitzaile edo hirugarren horrek ez badu aipatutakoa egin edo kontratatuko.

05

JOKABIDEA LEHIAKIDEEKIN



5.1 LEHIAREN AURKAKO PRAKTIKEI AURRE EGITEKO NEURRIAK

Ingeteamek lehiakideekin modu legalean lehiatzeko konpromisoa hartzen du, lehiakortasun lege aplikagarri oro betetzeko, negozioetan integritatea mantentzeko eta lehia librearen aurkako edozein jarduera edo praktikari uko egiteko.

Ingeteamek hirugarrenei legez aitortutako eskubide guztiak errespetatuko ditu, eta ez da onartuko eskubideak urratzea; enpresako sekretuak eta jabetza industrialekoak errespetatu egingo dira enpre-

sa lehiakorretatik datozen profesionalen hautapen prozesuetan.

Ingeteamek debekatu egiten du bere langileak lehiakideekin biltzea edo informazioa partekatzea, salbu eta erakunde publiko edo sektoreko erakunde baten babespean egiten bada, gardentasunez, modu legal eta etikoan, eta ez bada motibaziorik existitzen lehiaren aurkako praktikak garatzeko.

06

IRAUNKORTASUNA
ETA ERRESPETUA
INGURUMENAREKIKO,
INGURUNE
SOZIALAREKIKO ETA
PUBLIKOAREKIKO



Ingeteamek lan egiten duen lurraldeetako jasangarritasunarekin, ingurunearekin, ingurune sozialarekin eta publikoarekin konpromisoa du, eta harreman garden, legal eta etikoak dauzka lurralde horietako erakundeekin, administrazio publikoekin eta erakunde politikoekin.

Konpromiso hori Nazio Batuen giza eskubideen, lanaren, ingurumenaren eta ustelkeriaren aurkako adierazpenen ondorio diren Munduko Itunaren 10 printzipioak betetzeari atxikitzean gauzatu zen, bai eta Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuei (GJH) ekarpena egiteko konpromisoan ere.

6.1 INGURUMENA ERRESPETATZEA ETA BABESTEA

Ingeteamen, jarduten duen ingurune ingurumena erabat errespetatuz garatzen da enpresa-jarduera, aplikatu beharreko araudia betez, kutsadura aurreikusiz eta enpresa-jardueren inpaktua minimizatuz.

Horregatik, langileek beharrezko neurriak garatu eta bete beharko dituzte ingurumena babestu eta errespetatzeko, hura gauzatzeak ingurumenean

duen eragina minimizatzeke, baliabideak eraginkortasunez erabiltzen eta biodibertsitatea babesten saiatuz.

Era berean, hirugarrenetik harremanetan, langileek ingurumen-politika horiek helaraziko dizkiete hornitzaileei edo enpresa laguntzaileei, beharrezkoa denean.

6.2 GIZA ESKUBIDEAK ETA INGURUNE SOZIALA ERRESPETATZEA

Ingeteamek, hornitzaileek eta horiei lotutako hiru-garren aldeek, ingurune soziala errespetatu behar dute eta giza eskubideak bete behar dituzte, baita Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenetan jasotako lan arloko oinarrizko printzipioak ere. Horretarako beharrezko politikak eta prozedurak diseinatu eta aplikatu beharko dituzte, lan egiten duen lurraldeetan betetzeko, bereziki arlo hauetan:

- Hurrek lan egitea arbuiatzea, eta haurren enpleguarekin ekoiztako edozein produktu eskuratzea debekatzea, tokiko legediarekin eta Lanaren Nazioarteko Erakundearekin lerrokatuta.
- Nahitaezko lana edo lan neketsua arbuiatzea eta debekatzea, baldintza latzetan egindakoa, langileen borondatearen aurka edo zigorren mehatxupean.
- Langileei elkartzeko askatasuna eta eskubidea erraztea, baita negoziazio kolektiborako ere.
- Langile guztien artean aukera berdintasuna eta bazterkeriarik eza bermatzea: edozein arrazoiren ondoriozko bazterkeria jokabideak baztertzea eta zuzentzea, baita lan jazarpen eta jazarpen sexualeko edozein modu ere.

6.3 GATAZKA-EREKUETATIK DATOZEN MINERALAK EZ ERABILTZEKO NEURRIAK

Ingeteamek manufakturatutako produktuek ez dutela izan behar gatazkan dagoen eremu batetik datozen mineralik edo lehengairik bermatzen duen politika bat ezarri du, eta ez dela erabili bortxazko lanik edo haur-lanik erauzketan. Horretarako, hornidura-katean honako alderdi hauek eskatzen ditu:

- Mineralen eta horien iturrien erauzketa egiaztatuta eta gatazkatik kanpo dagoela bermatzeko politikak eta prozedurak ezartzea.
- Hornitzaileari eskatu ahal izango zaion mineralen hornidura-katea erregistratzea eta dokumentatzea.

6.4 USTELKERIA SAIHESTEA ETA ERAKUNDE PUBLIKOAK, GOBERNUA ETA ANTOLAKETA POLITIKOAK ERRESPECTATZEA

Ingeteamek jarduera eta negozio eredua garatzen duen lekuetako tokiko, estatu mailako eta nazioarteko komunitateekin kolaboratzeko konpromisoa du, jarduera garatzen duen lurraldeetan politikoki eragin gabe.

Ingeteameko langileek erakunde publiko, funtzionario eta agintariekin modu zilegian, etikoan eta errespetuz izango dituzte harremanak: gobernuarekin, aginteekin eta alderdi politikoekin edozein harreman sortzean, legezotasuna eta neutraltasuna oinarritzat hartuko da.

Horren haritik, Ingeteam gardentasun, integritate eta zintzotasun printzipioen arabera dago araututa, eroskeria, eragimen trafiko, alderdi politikoen finantzaketa edo edozein ustelkeria motarekin lot daitekeen jarduketa orori uko eginez.

Jarraian, Ingeteameko langileek funtzionario edo agintari publiko edo politikoeikiko ustelkeria saihesteko jarraibide zehatzak jasoko dira, honako hauek erabat debekatuta dituztelako:

- Opariak, gonbidapenak, mesedeak edo konpentsazioak eskaintzea, ematea, eskatzea edo onartzea, zuzenean edo zeharka, eskudirutan edo gauzatan, edozein izaerarekin, agintari publiko edo politikoko edo funtzionarioei, edo lotutako hirugarrenei; ez da beharrezkoa trukean inolako tratu lagungaririk jasotzea.
- Funtzionario publiko edo agintari batean eragina izatea, harreman pertsonala baliatuz, edozein

motatako tratu lagungarria eragin edo etekina sorraraz dezakeen irtenbidea lortze aldera.

- Erakunde edo fundazio publikoei, alderdi politikoei edo antzeko entitateei ekarpenak edo kontraprestazioak egitea, eskudirutan eta/edo gauzatan, kasuan kasuko legedi aplikagarriaren aurkakoak badira.

Ingeteameko langileek alderdi politiko edo helburu publikoko bestelako entitate, erakunde edo elkarteri lotuta badaude, haien parte badira edo haiekin kolaboratzen badute, edo Ingeteamen helburuak gainditzen dituzten entitateetakoak, eta horiei zerbitzuak edo ekarpenak emanez gero, orduan argi geratu behar da izaera pertsonala duela eta Ingeteamen inplikazio oro saihestu behar da. Nolanahi ere, jarduera hori lan ordutegitik eta enpresako instalazio orotik kanpo egin behar da; hala, ezingo zaio enpresari leporatu.

Langileak lotura zuzena edo zeharkakoa badu alderdi politikoekin, gobernu publikoko arduradunekin edo funtzio publikoko arduradunekin, eta horrek, bere eginkizunak betetzean, eragina izan bidezake Administrazio Publikoarekiko merkataritza-harremanetan edo bezero edo hornitzaileekiko negozio-harremanetan, Betetze eta Jokabide Batzordeari jakinarazi beharko dio, betetzeko arriskurik edo interes-gatazkarik dagoen balioesteko.

07

BETEBEHARRAK
ETA EZ BETETZEAK



7.1 JOKABIDE-KODEAREN EDOZEIN URRAKETA JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA

Ingeteameko langile guztiek, edozein maila hierarkiko edo kokapen geografiko dutela, zein hornitzaile eta hirugarrenek ere, lotura zuzena eta interes komertzial edo profesional zilegia badute, Jokabide-Kodearen zein legedi aplikagarriaren edozein urraketa jakinarazi eta salatzeko betebeharra daukate, Ingeteamen kultura etikoan laguntzeko helburuarekin.

Horrez gain, edozein bezero, hornitzaile edo lotutako edozein hirugarren alde egindako salaketa edo komunikazio oro jakinarazteko betebeharra daukate langileek, Jokabide-Kodea eta legedi aplikagarria urratzea ekar badezake.

Ezein langilek, edozein maila edo posizio izanda ere, ezingo dio beste profesional bati eskatu Jokabide Kode honetan ezarritakoaren aurka egin dezan; hala eginez gero, jakinarazi beharreko Kode urraketa gisa hartuko litzateke. Horren haritik, ezin da jokabide edo urraketa bat goragoko agindu baten babespean justifikatu (zor den obedientzia), eta ezingo da esan Jokabide-Kodea, taldearen politikak edo legedi aplikagarria ezagutzen ez denik (nahita ez jakitea).

Langileek, hornitzaileek edo hirugarrenek egindako gertaeren inguruan fede onez egin beharko dira komunikazioak eta salaketak, Ingeteamek lan, merkataritza harreman edo harreman profesional zuzena baldin badu haiekin, honako hauei dagokienez:

- Jokabide-Kodeari edo Ingeteameko beste edozein prozedura edo politikari dagozkion ez betetzeak.
- Lanaren esparruan, esparru zibil edo penalean indarrean dagoen legedi eta araudia bete ez izana jakitea, Ingeteamen eragina badaukate.
- Erakundearentzat onura bat lortu duen delitu bat egin izana salatzeko betebeharra bereziki azpimarratu behar da, inoiz ez baita justifikagarria izango. Ingeteamek uko egiten dio edozein profesionalen delitu-jarduketaren ondorioz jaso daitekeen edozein diru-sarrera edo zuzeneko edo zeharkako onurari.

Informazio faltsua fede txarrez jakinaraziz gero, Jokabide-Kodea urratu egingo da, baita ikertzaileei gezurra esan, dokumentuak faltsutu, edo Jokabide-Kodeari lotutako ikerketa batean kolaboratzeari uko eginez gero ere.

7.2 EZ BETETZEAK JAKINARAZTEA

Salaketak eta komunikazioak hierarkiako goragoko arduradunaren bitartez eta/edo Salaketa Kanalaren bitartez bideratu behar dira, posta elektronikoa hau erabiliz, zuzenean Jokabide eta Betetze Batzorde-
ra iritsiko dena: conducta.corporacion@ingeteam.com

Halaber, jakinarazpenak telefonoz egin dakizkioke Betetze eta Jokabide Batzordeko edozein kideri.

Posta bidezko alternatiba ere erabilgarri dago, hala nahiago duten pertsonentzat:

Ingeteam taldearen Salaketa Kanala

Jokabide eta Betetze Batzordea
Bizkaiko Parke Teknologikoa, 106. eraikina.
48170, Zamudio, Espainia - Spain

Salaketa edo komunikazioa idatziz egin behar da, ez dago eredurik finkatuta, baina honako informazio hau eduki beharko du:

- Salatzailearen identifikazio osoa eta Ingeteam taldearekin duen lotura, baita harremanetarako datuak ere, zerbait argitzea eta jarraipena egitea beharrezkoa izanez gero.
- Identifikatutako irregulartasun, ezinegon edo salaketaren azalpen zehatza, baita eskuragarri dauden ebidentzia edo euskarri agiri guztiak ere.
- Hala badagokio, kaltetutako pertsonen edo arduradunen identifikazioa.

Oro har, salaketak edo komunikazio anonimoak onartuko dira, edo, salatzailearen identifikazioa akastuna bada, Betetze eta Jokabide Komitea izango da, eta hark aintzat hartu ahal izango du salaketaren inguruabarrak eta egitateak baloratu ondoren.

7.3 KONFIDENTZIALTASUN ETA ERREPRESALIARIK EZAREN BERMEAK

Ingeteamen Administrazio Kontseiluak jokabide irregularrak saihesten laguntzen duten pertsonak baloratu, babestu eta tinko lagunduko ditu. Ingeteamen zerbitzura dagoen pertsona oro seguru sentitu behar da fede onez salatutakoaren ondoriozko emaitza negatiboen aurrean. Administrazio Kontseiluak, ildo beretik, berariaz bermatzen du ez dela inolako errepresaliarik hartuko inoren aurka, betiere fede onez jokatu badu. Horren haritik, arazo bat aurkeztu duen langile baten aurkako errepre-

salia oro Jokabide-Kodearen urraketa gisa hartuko da.

Horrez gain, Administrazio Kontseiluak salatzailearen nortasunaren erabateko konfidentzialtasuna bermatuko du, baita emandako datuena ere; eskusiboki Jokabide eta Betetze Batzordeak, ikerketa taldeak edo, hala badagokio, aginte judizial esku-dunak jakingo ditu, ematea derrigorrezkoa izanez gero.

7.4 URRAKETAK IKERTZEKO ERANTZUKIZUNA

Ingeteamen Jokabide eta Betetze Batzordeak honako erantzukizun hauek ditu Jokabide-Kodea eta indarrean dagoen legedia ez betetzeari dagokionez:

- Mota guztietako kontsulta, salaketa, jakinarazpeni harrera egitea, baloratzea, izapidetzea, ikeretzea eta, hala badagokio, ebaztea, Jokabide-Kodearen aplikazioa edo araudia edo erregulazio aplikagarria ez betetzeari dagokionez, Salaketa Kanalaren bitartez edo beste edozein moduren bitartez jasotakoak.
- Beharrezko neurri zuzentzaile eta diziplina neurriak ezartzea, ondoren bermatuz ebazpenak ezarri egin direla eta erabakiak gauzatu direla, baita, hala badagokio, zuzentzeko ekintza plan zehatzak ere, kasuan kasuko zuzendariari jakinaraztea barne, diziplina zehapenak gauzatzeko aldera.

Jokabide-Kodea larriki urratu, ez bete edo jokabide desegokia izateagatik ikerketa bat eginez gero, Ingeteamen Jokabide eta Betetze Batzordeak sarbidea izan ahalko du ikertutako langilearen posta

elektronikoaren postontzira eta gailu elektronikoen edukira. Horren haritik, garrantzitsua da honako gai hauek nabarmentzea:

- Ingeteamen langile orok daki emandako gailu elektronikoen (ordenagailuak, tabletak, telefonoak, etab.) helburu profesional eta lan helburuetarako direla. Langileak gai pertsonaletarako erabiliz gero, ezin du erabileraren pribatutasuna espero.
- Ingeteameko langile orok onartzen du bere posta elektronikoen postontzira eta gailu elektronikoen edukira sarbidea lortu ahalko dela Jokabide-Kodea edo indarrean dagoen legedia ez bada bete, larriki urratu bada edo jokabide desegokia egon dela pentsatzeko aski arrazoi egotearen ondoriozko ikerketa batean.
- Proporzionaltasuna zaintzan: beste neurri batzuk agortu ondoren aztertuko dira gailu elektronikoen, eta ez da neurri orokor eta indiskriminatua izango; aitzitik, ikertutako gertaeretara mugatutako eduki edo hitz gakoak erabiliko dira.

7.5 DIZIPLINA SISTEMA

Diziplina-sistema progresiboa erabiliko da sektoreko Hitzarmen Kolektiboak aplikatzeko, hala badagokio, Langileen Estatutua, edo jurisdikzioetan aplikatzen den antzeko legeria, eta Ingeteamen barne-araudiaren transposizioa.

Jokabide-Kodearen aurkako urratze edo jokaerak, bai eta diziplina neurriek ere, kasuan kasuko jurisdikzioan aplikagarri den legeria bete beharko dute.

Legeria aplikagarrian horrela jasotzen bada, izaera larriagoko bortxaketek zuzenean sor dezakete soldatarik gabeko etenaldia, eskersarien galera edo kaleratzea.

Langile batek Jokabide-Kodea urratu duela antzemanaz gero, azken erabakiaren akta eta abisu gutunaren edo gutunen kopia profesionalaren espedientean jarriko dira, horren erregistro tinkoen parte gisa.

Jokabide-Kodearen urraketa potentzial bat tarteko ikertzen diren profesionalak entzunaldia izateko aukera izango dute, azken ebazpenaren aurretik.

08

JOKABIDE-KODEA
EZAGUTZEA ETA
ONARTZEA



8.1 JOKABIDE-KODEA EZAGUTZEA ETA ONARTZEA

Ingeteamek langile guztien artean hedatu eta jakinaraziko du dokumentu honen edukia, barne komunikazio kanaletatik, argitalpenen bitartez, webgunetik, etab.

Ingeteameko langileek Jokabide-Kodea ezagutu eta betetzeko betebeharra daukate. Jokabide-Kodea ez irakurtzea ez da aitzakia izango bertako edukia ez betetzeko.

Ingeteamek Jokabide-Kodearen prestakuntza saioak eskainiko ditu, nahitaezkoak; saio horietan ez egotea Kodearen urraketa gisa hartu ahalko da. Jokabide Kode honetan deskribatutako balioei lotutako jokabideak kontuan hartuko dira Ingeteameko langileen lana ebaluatzerakoan.

8.2 INDARRALDIA

Ingeteam SA enpresako Administrazio Kontseiluak Jokabide-Kodea onartu zuen egunean bertan sartu zen indarrean, 2012ko urtarrileko saioan, eta Kontseilu horren 2019ko martxoaren 1eko saioan aldatu zen, gerora antolamendu-aldaketetara ere egokitu da.

Jokabide-Kodea aldizka berrikusi eta, hala bada-gokio, eguneratuko da, Betetze Batzordearen ho-

betzeko proposamenei erreparatuz; langileen proposamenak ere bideratuko dira, eta Administrazio Kontseilura helaraziko dira, baloratze aldera. Ingeteam SA enpresako Administrazio Kontseilua da Jokabide-Kodea aldatu eta eguneratzeko gaitasuna duen organo bakarra.

8.3 PROPOSAMENAK ETA ZALANTZAK

Jokabide Kode honi buruzko edozein kontsulta edo iradokizun erantzuteko zein Jokabide-Kodearen balizko urraketen inguruko edozein ezinegon jakinarazteko, hona hemen harremanetan jartzeko datuak:

Jokabide eta Betetze Batzordea

Parke Teknologikoa, 106. eraikina
48170 Zamudio (BIZKAIA) Spain

Tel.: 944 039 710

E-maila: conducta.corporacion@ingetteam.com

BERRIKUSPENEN AURKIBIDEA

Zkia.	Berrikuspenaren data	Arrazoa	Deskribapena	Arduraduna
0	Urtarrila 2012	Ingeteam SA enpresaren Administrazio Kontseiluak onartzea	Jokabide-Kodea sortzea	Jokabide eta Betetze Batzordea
1	2015/5/20	Ingeteam SA enpresaren Administrazio Kontseiluak aldaketa onartzea	09 Aldaketa ERABILERA ONARGARRIKO POLITIKA/Dirua eta maileguak	Jokabide eta Betetze Batzordea
2	2019/3/1	Ingeteam SA enpresaren Administrazio Kontseiluak aldaketa orokorra onartzea eta INGETEAM taldearen presidentearen gutuna aldatzea	Gutuna aldatzea, aldaketa orokorra egitea eta eduki osagarria txertatzea	Jokabide eta Betetze Batzordea
3	2023/09/01	Antolaketa-aldaketak 2022-2024 Plan Estrategikoaren ondoren	Antolaketa-aldaketen aurrean eguneratzea eta zenbait atalen idazketa hobetzea	Jokabide eta Betetze Batzordea

Txosten hau INGETEAM, S.A.-ren jabetzakoa da. INGETEAM, S.A.-ren alde aurreko idatzizko baimenik gabe, edozein bide edo prozeduraren bitartez, erreprografia edota informatika barne direlarik, erabat debekaturik dago txosten hau osorik edo zatika argitaratu, kopiatu edo beronen transmisiorik egitea.